

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko ikasleen emanaldiak hasiko dira bihar

Otsaileko zein martxoko ostegun guztietan kontzertua eskainiko dute 4.mailako ikasleek Fernando Remacha Entzutegian, arratsaldeko 19:30ean eta dohainik

Asteazkena, 2019.eko otsailak 6

Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioan 4. mailan dauden 24 gazteek guztira 6 emanaldi eskainiko dituzte, ikasturte amaierarako kontzertuen aurrerapen gisa. Espezialitate klasikoetan bonbardinoa, kantua, klarinetea, txirula, gitarra, perkusioa, pianoa, saxofoia, tronpa, tronpeta, txistua, biolina eta biola musika tresnez gozatu ahalko dute bertaratzen direnek.

Bihar ostegunarekin hasiko da Nafarroako Kontserbatorioak antolatzen duen Interprete Gazteen IV.zikloa. Aurten 6 emanaldi eskainiko dituzte guztira, otsaileko zein martxoko ostegun guztietan, arratsaldeko 19:30etan hasita Fernando Remacha entzutegian. Sarrerarik ez da ordaindu beharko.

Lehen ostegun honetan Laura Ferrer biolin jotzailearen txanda izanen da, Julen Carrero tronpeta jotzailea, David Abaigar perkusioan eta Iker Ayensa saxofoiarekin. Édouard Laloren 'Sinfonía Española', biolinarentzako 'Partita' nº2 (Johann Sebastian Bach), 'Fantasía Eslava' (Carl Höhne), Jacques Ibert Ganbara kontzertua, 'One Study' (John Psathas) eta konpositore espainiarraren 'La Céleste' lanak eskainiko dituzte

Programa osoa

2016an hasi zen Kontserbatorioa ziklo hau eskaintzen eta dagoeneko ohiko bilakatu da Iruñeko musika programazioan. [Bihilabeterako programak izen hauek biltzen ditu:](#)

Otsailaren 14ean: Beñat Isasti, Elena Olmos, Miriam Guillén, Nieva Villar.

Otsailaren 21ean: Adrián Aznarez, Ainara Martinez, Ana Lasaosa y Jon Ander Arcenillas

Otsailaren 28an: Gorka Alduante, Rinaldo Zhok, Sara Guerrero y Pablo Quiñonero

Marxoaren 7an: Leire Unzué, Itziar Calvo, Beltrán Muerza y Amaia Valdés

Martxoaren 14ean: Daniela Sagastibeltza, Pablo Viana, Iker Idoate, Cynthia Nieves